

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5220

1923/2023 EBAZPENA, urriaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren azaroaren 10eko 511/2022 epaia bete dela, Ofizial Gidari kategoriari dagokionez (2011ko EPE).

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren azaroaren 10eko 511/2022 epaia ikusi da eta agindu judizialari dagokion administrazio-espeditentea aztertu da, ondoko hauetan oinarrituta

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren (2011ko uztailaren 27ko EHAA 142. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 9ko 17/2012 Ebazpenaren bidez, onartzen dira estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri espezifikoak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Ofiziala kategorian (Gidariak lanpostu funtzionalak). (2012ko urtarrilaren 26ko EHAA 18. zk.).

Abenduaren 18ko 417/2015 Ebazpenaren bidez, web-orrian argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak 2011n deitutako hautaketa-prozesuko destino hutsen zerrenda, Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Ofizialak kategorian (Ofizial Gidariak lanpostu funtzionalak), eta destinoa zehazten diren zerbitzu sanitarioetako erakundeetan izango dute.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 19ko 49/2016 Ebazpenaren bidez, Ofiziala kategorian (Gidariak lanpostu funtzionalak) hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destino hutsen esleipena argitaratu ziren. Juan Vergara Aurrecoechea jauna Ebazpen honen I. eranskinean sartuta dago, Bilbo-Basurtuko ESiko Basurtuko UOko Zerbitzu Orokorren destinoaren esleipendun gisa.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 19ko 50/2016 Ebazpenaren bidez argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten sartutako esleipendunen izendapena estatutupeko langile finko gisa (I. eranskina) Ofiziala kategorian (Gidariak lanpostu funtzionalak). (2016ko otsailaren 4ko EHAA 23. zk.). Juan Vergara Aurrecoechea jauna Ebazpen honen I. eranskinean sartuta dago, Bilbo-Basurtuko ESiko Basurtuko UOko Zerbitzu Orokorren destinoaren esleipendun gisa.

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 18ko 33/2018 Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren erabaki judizialak betetzen dira (382/2017, 451/2017 eta 582/2017 epaiak). Ebazpen horrek baliogabetu egiten ditu, bestek

beste, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 19ko 49/2016 eta 50/2016 ebazpenak.

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 18ko 34/2018 Ebazpenaren bidez, kautelazko neurriak hartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren erabaki judizialak betearazteko testuinguruan (382/2017, 451/2017 eta 582/2017 epaiak). Ebazpen horrek kautelazko neurria hartzen du Ofiziala (Gidaria) kategorian (2011ko EPEa) estatutupeko langile finkoen esleipenak eta izendapenak mantentzeko. Esleipen eta izendapen horiek, besteak beste, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 19ko 49/2016 eta 50/2016 ebazpenen bidez onartu ziren.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 21eko 433/2019 Ebazpenaren bidez, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratu zen, eta ondoriozko faseko destinoak esleitu ziren Ofiziala kategorian (Gidariak lanpostu funtzionalak), zenbait erabaki judizialek emandako epaiaren ondorioz. Juan Vergara Aurrecoechea jauna ebazpen horren II. eranskinean dago, destino-aukera duten izangaien zerrenda jasotzen duen eranskinean.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko uztailaren 23ko Erabakiaren bidez, ezetsi egin zen Juan Vergara Aurrecoechea jaunak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 21eko 433/2019 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtoa.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren uztailaren 1eko 527/2019 Ebazpenaren bidez, behin-behineko neurriak kentzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren erabaki judizialak betearaztearen testuinguruan, zehazki, Ofiziala (Gidaria) kategoriarri eragiten dioten neurriak (2011ko EPEa). Ebazpen horren aurka, Juan Vergara Aurrecoechea jaunak gora jotzeko errekurtoa eta eteteko eskaera aurkeztu zituen, baina ez zen onartu, epez kanpo aurkezteagatik, Osakidetzako zuzendari nagusiaren irailaren 24ko 1236/2019 Ebazpenaren bidez.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 1eko 562/2019 Ebazpenaren bidez, argitara ematen da azaroaren 23ko 1231/2018 Ebazpenaren I. eranskinean, urtarrilaren 14ko 37/2019 Ebazpenean (ekainaren 17ko 503/2019 Ebazpenaren bidez aldatua) eta maiatzaren 27ko 433/2019 Ebazpenean (ekainaren 17ko 503/2019 Ebazpenaren bidez aldatua) jasotako esleipendunen izendapena, estatutupeko langile finko gisa, Ofiziala kategorian (Gidaria lanpostu funtzionala).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren irailaren 16ko 1202/2019 Ebazpenaren bidez, Juan Vergara Aurrecoechea jaunak Ofiziala (Gidariak) kategorian estatutupeko langile finkoaren izaera galdu zuela deklaratu zen, Ofiziala (Gidariak) hautaketa-prozeduran (2011ko EPEa) eragina izan zuten epaia betearazteko jarduketan ondorioz.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko abenduaren 19ko Erabakiaren bidez, ezetsi egin zen Juan Vergara Aurrecoechea jaunak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 1eko 527/2019 eta 562/2019 ebazpenen aurka jarritako gora jotzeko errekurtoa.

Bigarrena.– Juan Vergara Aurrecoechea jaunak administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu zuen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko uztailaren 23ko Erabakiaren eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren irailaren 24ko 1236/2019 Ebazpenaren eta uztailaren 1eko 562/2019 Ebazpenaren aurka.

2023ko azaroaren 21a, asteartea

Hirugarrena.– Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiaren martxoaren 26ko 242/2021 epaiak baietsi egiten du Juan Vergara Aurrecoechea jaunaren errekurtoa, eta deklaratu du errekurtsogileak eskubidea duela estatutupeko langile finko izateko eta Deustuko EAGan ofizial gidaria izateko, eta deuseztatu egiten ditu errekurritutako ebazpenak, eragiten dioten neurrian, horri datxezkion eskubide guztiekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren azaroaren 10eko 511/2022 epaiak ezetsi egin zuen Osakidetzak aurreko paragrafoan aipatutako epaiaren aurka jarritako apelazio-errekurtoa, eta berretsi egin zuen.

Laugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2022ko azaroaren 10ean emandako erabaki judizialaren ondorioz, 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintzako Ofiziala (Gidariak) kategoriako deialdian jarduketak egin behar dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Osakidetzako zuzendari nagusiari dagokio epaia betearaztea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ematen dizkioten eskumenen arabera.

Bigarrena.– Administrazioarekiko auziez arduratzen diren epaitegi eta auzitegiek beren epaiak betearazteko eskumena dute; prozesuko alderdiek, berriz, epai eta ebazpen horiek bertan adierazten den moduan bete behar dituzte, horixe xedatzen baita administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 103.2 artikuluetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2022ko azaroaren 10ean emandako erabaki judizialaren ondorioz, Juan Vergara Aurrecoechea jaunari aitortu behar zaio estatutupeko langile finko izaera berreskuratzeko eskubidea, bai eta errekurritzen dituen ebazpenak baliogabetzekoa ere, eragiten dioten neurrian, horrek berekin dakartzan eskubide guztiekin. Era berean, Juan Vergara Aurrecoechea jaunari destinoa esleitu behar zaio Bilbo-Basurtuko ESIko Deustuko EAGn, txanda irekian, Ofiziala kategorian (Gidariak lanpostu funtzionalak).

Hirugarrena.– Administrazio-egintzak kontserbatzeko printzipioaren arabekoak izango dira (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 51. artikuluan arabera) sarbide prozedura izapidetzean egindako gainerako administrazio-egintzak, hemen aldatutakoez bestelakoak, egin diren baldintza zehatzetan.

Azaldutako guztia kontuan hartuta

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2022ko azaroaren 10eko erabaki judiziala bete dadila xedatzea, Juan Vergara Aurrecoechea jaunari dagokionez, 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren Ofiziala kategoriaren testuinguruan (Gidaria lanpostu funtzionala).

Bigarrena.– Erabaki judiziala izapide hauen bitartez gauzatzea:

1.– Juan Vergara Aurrecoechea jaunari estatutupeko langile finko izaera berreskuratzeko eskubidea aitortzea.

2.– Baliogabetzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko uztailaren 23ko Erabakia, zeinaren bidez ukatzen baita Juan Vergara Aurrecoechea jaunak Osaki-

detza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 21eko 433/2019 Ebazpenaren eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren irailaren 24ko 1236/2019 Ebazpenaren eta uztailaren 1eko 562/2019 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtoa, eragiten dioten neurrian.

3.– Juan Vergara Aurrecoechea jaunari Bilbo-Basurtuko ESiko Deustuko EAGan Garraio Sanitarioko Gidaria kategoriako lanpostu bat esleitzea, txanda irekian, Ofiziala kategorian (Gidariak lanpostu funtzionalak).

4.– Ofiziala kategorian (Gidariak lanpostu funtzionalak) estatutupeko langile finkoaren izendapena ematea Joseba Goiri Torrontegui jaunari, eta adieraztea hilabeteko epea izango duela esleitutako destinoaz jabetzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren egoitzan, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Ebazpen honetan xedatutakoaren eraginetik at geratzen diren gainerako egintza eta izapideek bere hartan jarrai dezatela agintzea.

Laugarrena.– Ebazpen hau EHAAan argitara dadila agintzea, eta Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko auzien 3. Epaitegiari jakinaraztea.

Bosgarrena.– Epaia betetzeko izapideetan sor daitezkeen gorabeherak aztertzea eta ebaztea aipatutako epaitegiari dagokio, halaxe ezartzen baita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 103.1 eta 109. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 3a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.